

Emakume eta Gizonen Berdintasuna.

Berdintasun Teknikariaren eginkizunen arabera honakoak dira batzordearen eskumenak:

- 1.- Egitaraua planifikatzea, horren jarraipena egitea eta ebaluaketa diseinatzea.
- 2.- Udalak onartzen dituen Berdintasun Plangintzen jarraipena egin, baita horien egokitzapena eta abiaraztea.
- 3.- Jarduera positibo jakinak diseinatu eta bultzatzea.
- 4.- Gainerako udal lansailei, erakundeei eta organoei aholkua ematea emakume eta gizasemeen arteko berdintasun gaietaz.
- 5.- Gizaseme eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko xedez, egitarauak, berariazko zerbitzuak eta/edo bitartekoak bermatzea.
- 6.- Udalerrian gerta litezkeen bazterkeria egoerak ezagutzea, eta horiek desagertarazteko neurriak diseinatu eta sustatzea.
- 7.- Berdintasun lantsailaren bitartez jarduerak koordinatzea gaineko udal lantsail guztiekin eta herriko elkarteekin.
- 8.- Ezagutzera ematea barruan zein kanpoan Berdintasun Lantsaila eta Emakumeen Kontseilua.
- 9.- Udaleko langileak eta, oro har, herritarrak gizaseme eta emakumeen arteko berdintasun gaietan sentiberatzeko eta prestatzeko egitarauak sortzea.
- 10.- Udalaren politikagintzan genero ikuspegia txertatzeko ekintzak bultzatzea; egitarauak, partaidetza ekimenak eta jarduera ezberdinak.
- 11.- Herri erakunde eta erakunde pribatuen arteko lankidetzak eta partaidetza errazteko bideak sustatzea, horrela, bere egitekoak eta helburuak aintzakotzat izanik, emakume eta gizasemeen arteko berdintasuna lortze bidean laguntza eman dezaten.
- 12.- Emakumea ahalduentzeko gune eta ekimenak bultzatzea.
- 13.- Aipaturikoez gain, hurrengo zerrendan jasotako eginkizun guztiak gauzatu beharko ditu: Lanpostuaren helburuekin loturik egonik agintzen zaizkionak, beti ere bere gaitasun eta ahalmenen mailakoak. Baita legeak aginduta bete behar dituen guztiak.